

## Baionan, 1998ko maiatzaren 29an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua  
H. Knörr, buruordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
P. Altuna,  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
X. Diharce,  
X. Kintana,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
P. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
J. San Martin  
eta I. Sarasola  
euskaltzainak  
eta  
J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea,  
J. J. Zearreta, ekonomia eragilea, M.  
Lourdes Oñederra  
eta Pilartxo Etxeberria, Ahoskera batzor-  
deko kideak (1. gaian)  
eta Rikardo Badiola, argitalpen eragilea  
(3. gaian).

Bestalde, Federiko Krutwigek istripu bat izan duela eta erietxean dela aiderazi du euskaltzainburuak. Lehenbaitlehen osatzea opa dio.

### *1.1. Ahoskera lantaldeko "Ahoskera batuaz" txosten osatua aurkeztea.*

Txostena aurkez dezaten, hitza eman zaie Lourdes Oñederra eta Pilartxo Etxeberria andreei. Lourdes Oñederrak esan du ezer gutxi duela lehengoari gehitzeko. Berriz ere azpimarratu nahi izan du ez dutela nahi izan hizkuntza berri bat asmatu. Hizkuntzaren aldagarritasuna kontuan hartu behar dela. Horregatik, batzuetan eredu bikoitza proposatzen da.

Peillen jaunak gogorarazi du ongi hitz egiten dutenek ere jendearen izenak ematerakoan, zenbaitetan, erdal ereduari jarraitzen diotela eta honetaz zerbait esan beharko litzatekeela. Kontu hori geroagoko txosten bat izan litekeela erantzun dio L. Oñederrak.

Beste zenbait ohar orokor ere egin dira. Nolanahi ere, aurkeztutako txostenari oharrak egiteko epea, beti bezala, hilaren 20a artekoa izango da.

Ondoren, egin nahi diren ahoskera jardunaldietarako batzorde akademikoa nola osa eztabaidan jarri da. Oñederra andreak jardunaldiok nola joango diren azaldu du: hizlariak, gaiak, mintegiak etab. Horren arabera, badirudi ez dela aukera handirik izango partehartzaileen txostenetarako. Horrenbestez, batzorderik ere ez da beharko, segurutik.

Baionan, Thiers kaleko Euskaltzaindiaren Ordezkaritza berrian, 1998ko maiatzaren 29an, goizeko hamarrak eta laurdenetan, eman dio hasiera Euskaltzaindiak hilero-ko batzarrari. Ezkerreko zutabeen jasotzen dira bildu diren euskaltzainen izenak. Ezin etorria adierazi dute F. Krutwigek, P. Salaburuk, A. Urrutiak eta L. Villasantek.

### *Aurreko bilera agiriak onartzea.*

J. San Martin jaunak 3.3 puntuari ohartxo bat egin dio: Euskaltzaindia ez zen errege dekretuz sortu. Errege dekretuz Euskaltzaindiaren Errege Akademia izaera onartu zen.

Beste oharrik gabe, ontzat eman dira aurreko hileko bi agiriak.

### *Euskaltzainburuaren hitzak.*

Eguneko aztergaietan bete-betean sartu orduko, mahaiburuak zorionak eman nahi izan dizkio B. Oihartzabal jaunari *Le Monde* egunkarian argitara berri duen artikuluagatik.

Nolanahi ere, batzorde horretako buru Beñat Oihartzabal izendatzea erabaki da, badaezpada.

Miren Azkarate andreak galdetu du ea Jagon sailak zerbait egin behar duen jardunaldiotan. Hasieran zerbait egitekotan omen ziren. Nolanahi ere, ezer ez denez pentsatu horretaz, Jagonekikoak beste batean izango dira.

### 1.2. “Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma” onartzea.

Araugai hau aurreko batzarrean banatu zitzairen euskaltzainei. J. L. Davant jaunak zenbait ohar aurkeztu ditu: 2.e puntuan, *heldu da*-ri ematen zaion balioa zehaztu beharra dago, zubereraz *heldü da* ‘etorri da’ baita. Zehaztasun hau onartu da. Bestalde, 3.b eta c puntuetan esaten dena ere osatu beharra ikusten da. Ekialdeko euskaretan -eta ez zubereraz bakarrik- kontsonante ondotik -EN ageri da erabat. Beste kasuetan, -EN eta -KO biak erabiltzen dira, nahiz eta -KO nagusituz doan.

Kontu hauek arauaren testuan jasoko dira eta behar bezala emango argitara.

#### 1.3.1. Aurreko zerrendako kalabazin eta kuitxiki hitzak onartzea.

Bi hitz hauek zintzilik utziak izan ziren aurreko batzarrean. Batzordearen informazioaren arabera, badirudi Iparraldean *kuiatto* ere ageri dela. Horrenbestez, *kuiatxo* jaso beharko litzatekeela uste du batzordeak. Hala onartu da. Beraz, *kuiatxiki* zerrendatik ezabatu egingo litzateke. *Kalabazin*-en sarreran, berriz, *Heg. h. kuiatxo* ezarriko litzateke. Horrela onartu da.

#### 1.3.2. Lekora-lozorro zerrenda onartzea.

Lehenbizi, X. Kintana jaunaren oharra hartu dira aztergai.

*Lengoaia* hitza zerrendan datorren bezala ez du maite ohargileak. Hitz hori euskal hitza dela, eta ez dela baztertzeko arrazoirik. Dena den, eztabaidan parte hartu duten guztientzat nolabait markatua da hitz hori. B. Oihartzabalentzat zaharkitua da eta horrela markatzea eskatzen du. Horrela onartu da. Horrenbestez, *Zah. h. mintzaira, hizkuntza* oharra erantsiko zaio sarrera horri.

*Lorezain / lorazain; lorezaintza / lorazaintza* eztabaida ekarri du ohargileak. Hiztegietan *lora*- omen da forma nagusia. Erantzun zaio literaturan gehien erabili den forma *baratzezain* dela. Auzitan dagoen hitzak ez du, antza, tradizio handiegirik. Gauza aski argi dagoelakoan botoetara jo da. Hona emaitza: hamalau boto batzordearen proposamenaren alde. Horrenbestez, zerrenda aldatu gabe utzi da.

*Lore(-)ontzi* hitzarekin ere eztabaida txiki bat izan da. Zerrendan jaso datorrena da forma nagusia. Botoetara eraman da auzia: hamabost agertu dira batzordearen proposamenaren alde. Beraz, Kintana jaunaren oharra ez da onartu.

*Loria* hitza ohargileak dio ez dela Ipar. soilik. Hegoaldean ere erabiltzen da. Onartu da oharra. Honela emango da sarrera hori: 1. ‘aintza’; 2. Ipar. ‘poza’

*Lorin* hitzaren adiera emateko zailtasunak daude. Hiztegian begiratu da kontua eta egoki diren adibideak emango dira.

*Lotinant* hitzarendako batuzko ordaina eskatzen du ohargileak. Ez da onartu.

*Loto* hitzaren sarreran ematen den latin deiturarekin ez dator bat X. Kintana: *Nymphaea lotus* ez, *Nelumbo nucifera* behar omen du. Batzordeak UZEIra galde egitea proposatzen du. Kontsulta egin da baina UZEI-koen iritzia ere ez dator ohargilearen iritziarekin bat. Horretan utzi da, beraz, kontua.

Ondoren, H. Knörren oharrak hartu dira eztabaidagai.

*Lekuizen* sartzeta onartu da, *Leku*-ren azpisarrera gisa.

*Lelantoni* bigarren itzulirako utzi da.

*Lemamia* sarrera gehituko zaio zerrendari: Lemamia\* e. legamia.

*Leotz*-i buruzko oharra dela eta, sarrera hau bigarren itzulirako uztea proposatu eta onartu da.

*Letxe* eta *lez*-i Lgrt. oharra gehitzeko eskaria ez da ontzat hartu.

*Lezoi* sarreran hobesten den *pezoi* hitza baino egokiagoztat dauka ohargileak *pezoin*. Ez da onartu forma hau sartzeta. Ez da onartu *litxarero* sarreran Lgrt. oharra ezartzeta ere.

*Lo arin*, *lo astun*, *lo erre*, *lo zakar* hitzak sartzeta ez da onartu. Bigarren itzulirako izango lirateke, izatekotan. *Lor* sarrera ere bere horretan uztea erabaki da, ohargileak nahi dituen eranskinak gabe.

*Lotsabako* hitzari Bizk. oharra erantsiko zaio. *Lotune* hitzari adibide bat eranstea eskatzen da. Ahal bada, jarriko zaio.

Ondoren, A. Urrutia jaunak bidalitako oharrak aztertzeari ekin dio batzarrak.

*Lekoratu* hitza sartzeko eskaria ez da onartu. Gehienez ere, bigarren itzulirako utzi da.

*Lekualdaketa* hitza sartzeta bidezkoztat jo da.

*Lelotu*-ren bi adierak, 'ergeldu' eta 'goraipatu' bereiztea eskatzen du ohargileak. Zerrenda dagoen bezala uztea onartu da, inongo adierarik eman gabe.

*Lera* hitzaren bigarren adiera, 'grina', bizkaierazkoa omen da eta hala adieraztea eskatzen du Urrutia jaunak. Onartu da. Beraz, Bizk. oharra erantsiko zaio.

*Lerroalde* hitza hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

*Lesbianismo* hitzari sarrera ematea onartu da. Ondoren, *lesbiana* ala *lesbiano* sartu behar den eztabaidatu da. Argi gehiagoren faltan, hurrengo itzulirako utzi da hitz hori sartu behar ote den erabakitzea. Izan ere, euskal gramatikak eskatuko lukeena *lesbiano* forma izango litzateke, baina hau, zenbait euskaltzainen ustez gogortxo gertatuko litzateke.

*Lesio* / *lesionatu* arazoak ere eztabaida luzea ekarri du. Azkenean, bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Letania* hitzaren parean *letaria* ere sartzeta onartu da, lehenbizikoa hobetsiz. Hots: Letaria, h. letania.

*Leukozito* sartzea onartu da. *Libido* hitza ere bai. *Liberalizatu*, berriz, bigarren itzulirako utzi da.

*Likidatu* / *likidazio* hitzak sartzea ez da onartu. Izatekotan, bigarren itzulirako.

*Likore* hitzak ere ekarri du eztabaida. Bigarren itzulirako utzi da, azkenean.

Ohargileak *lizentziatura* hitzari ere leku egitea eskatzen du. Batzarraren ustez, *lizentzia* aski da. Horrenbestez, Urrutia jaunaren eskaria ez da onartu.

*Loezin* eta *logabe* hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

*Logreria* eta *logreru* hitzak sartzea ez da onartu. Ez eta *lotaldi* hitza ere.

*Lokomozio* / *lokomotor* hitzak hurrengo itzulirako uztea bidezko ikusi du batzarrak.

Ondoren, eztabaidarako utziak ziren hitzak aztertu dira.

*Letradu* hitzari bere lekua aitortzen zaio, Hegoaldeko hitz gisa. Horrenbestez, zerrendan datorren bezala uztea erabaki da.

Gero, *lino* / *liho* auzia argitzen saiatu dira euskaltzainak. *Liho* forma hobetsi da. Horrenbestez, honela emango dira dagozkien sarrerak: liho *linum* sp. eta lino\* e. liho. Baina *linazi* hobetsi da. Beraz, *lihazi*\* e. *linazi*, zerrendan datorren bezala. *Lihoazi* sarrera, berriz, ezabatu egingo da.

*Lirio*-ren sarrera, zerrendan datorren bezala, zalantzan jarri du Kintana jaunak. Horrenbestez, zuhurratgotzat jo da Hegoaldeko forma dela esatea soil-soilik.

Eztabaidarako utzitako beste hautua *loeri* / *loeria* zen. Dirudenez, *loeria* forma ageri da nagusi. Bestalde, bi adiera dituela esan da: 1. logalea, logura; 2. gaitz bat. Hala ere, ez da hauturik egin. Txosten berezi bat egingo da hurrengorako *-eria* amaiera duten hitz guztiez. Horren arabera hartuko da erabakia.

*Lore(-)jorraz* eta *loezil* hitzei buruz hitz egin da azkenik. Horrela ematea onartu da, zerrendan lehenbizikoak eskas duen parentesia ezarririk: *lore(-)jorraz*.

Honenbestez, onartutzat eman da *lekora* - *lozorro* zerrenda.

### 1.3.3. *Lubaki* - *makina* zerrenda onartzea.

Zerrenda honi buruz Davant jaunak egindako oharrak eztabaidatu dira lehenbizi.

*Mainu-etxe* hitzak sartu beharko ote lukeen galdetzen du, nahiz eta, *bainu* hitza hobesten denez, horren ondorioz argituko litzatekeen auzia. *Mainutegi* eta *mainagia* hitzei ere sarrera ematea ez da onartu.

Ondoren, X. Kintanaren oharrak jarri dira mahai gainean.

*Lurra* sarreran argigarri gisa adibideren bat ezartzea eskatzen du Kintanak. Ontzat eman da. Honela emango da adibide hori: *Gure planeta Lurra da*.

*Lurkapa*-ren sarrera honela aldatzea onartu da: *Lurkapa*\* e. (lur) geruza.

*Magisteritza* sarrerari buruzko oharra ere onartu da. Honela agertuko da delako sarrera hori: *Magisteritza*\* 1. e. irakasle(-)ikasketak: \**magisteritza ikasi zuen, e. irakasle ikasketak egin zituen*. 2. *magisteritza(-)eskola*\*, e. irakasle(-)eskola.

*Mailadi* sarreran, parean *mailak* ere sartzea onartu da.

*Majo* hitzari buruzko oharra ez da onartu. Zerrendan ageri den *majo* hori aditzondoa da, ez izenondoa.

*Makarroi*-ren adierak ematea ez da onartu. Bere horretan utzi da, horrenbestez, sarrera hori.

*Makina-erreminta*-ri buruzko eztabaida ere luze joan da. Botoetara jo da. Hamabost euskaltzain agertu dira forma hori gaitzetsi beharrean Hegoaldeko zatik ematearen alde, ordaintzat *makina-lanabes* barik, *makina-tresna* emanaz. Beraz, honela joango da sarrera hori: makina-erreminta Heg. h. makina-tresna.

Ondoren, H. Knörr jaunaren oharra eztabaidatzeari ekin dio batzarrak.

Lehenbizi, bi ohar txo egiten ditu: batetik, "EZTABAIDA" hitza hain urruti ez jarzea eskatzen du. Bigarren, *ingurugiro* sarrera ez omen dago behar bezala jasoa. Beste zerbait onartu omen zen. Ez da kontuan hartu.

Zerrendari buruz, *ludi*-ren ondoan h. mundu ezartzeko eskaria ez da onartu.

*Luparia* bigarren itzulirako uztea proposatu da. *Lurbel / lurbeldu* ere bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Lursagar*-en ordez *lusagar* eskatzen du Knörr jaunak. Ohargileak eskatzen duen forma honek lekukotasunik ez duenez, zerrenda dagoen dagoenean uztea erabaki da.

*Madura* hitza sartzea onartu da. Batez ere Bizk. dela esango da, 'padura' esanahia duela.

*Magia* sarreran, aldamenean 'aztikeria' sartzea ez da onartu.

*Maiku*-k ez du lekukotasunik eta, horrenbestez, ez da onartu sartzea.

*Mailegatu*-ren ordez *mailebatu* hobestea ez da onartu. Lehenbizikoaren aldeko lekukoak ugariagoak dira.

*Mailukari* hitza sartzea ontzat eman da. Baina *mainada*, *maira* eta *maka* bigarren itzulirako uztea erabaki da.

A. Urrutiaren oharra hurrengo bileran eztabaidatzeko utzi dira.

## 2. Eskuartekoak.

Euskaltzainei 1998ko Euskaltzaindia-BBK Literatur sariketa deialdiaren berri eman zaie: Txomin Agirre, eleberrisaria, Toribio Alzaga, antzerkisaria, Felipe Arrese-Beitia, olerkisaria, eta Mikel Zarate, saio-saria. 1997an saritutako lanak argitaratu berri dira, bestalde, eta euskaltzainei ale bana eman zaie.

Eta honenbestez, arratsaldeko ordu bietan eman zaio amaiera goizeko bilkurari.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga